

AKATSAK ETA ERDERAKADAK

1.—"Logela BAKARRA ala DOBLEA bear duzu?" (Euskaltzaindia'ren biltzarkide txartela) "Euskal-gaiztoa" besterik ez da esaldia. Ain zuzen, izan bai-daiteke:

--BAKARRA ta BERA BIKOA (doblea)

—BAKARRA ta BAKARREKOA

—BI, BAKARREKOA ta BIKOA

Beraz, onela idatzi bear zuten: "Logela BAKARREKOA ala BIKOA"?

2.—"Euskaltzaindia"ren kontuan ezarriAZ eta txartel honekin batera igorriAZ".

Zuzen izateko, onela bear zuan: "EzarriZ eta igorriZ".

3.—"LozakueKIN geletan lo egiteko aukera izango da". (Euskaltzaindia'ren Biltzarkide txartela)

Lagun ederra, berareKIN lo egiteko! Onela bear zuan: "Lo-zakuETAN lo egiteko aukera izango da geletan".

4.—"Beste berriko jatetxe batzuetan ere mahai erreserbak egingo dira". (Euskaltzaindia'ren Biltzarkide txartela)

Euskera eredugarria danik, ezin esango du iñork.

Zer esan nai zuten? Erri berean ez, BESTE erri bateko jatetxean? Ez noski. Beste au esan nai zuten, oso oker idatzi ba'zuten ere: "Erriko BESTE JATETXE batzuetan ere... EGINGO DITUGU naiz DITUZTE", norbaitzuek egingo bai-zituzten; baiña ez, "egingo dira" etorriko dira ba'litz bezala.

Azkenik, ERRESERBAK itz ori, oianetarako erabiltzen dute EITB'ko itzultzaileek.

5.—Nonbaiteko Udal-idazki batetik artuak, iru adibide bitxi:

a) "Gutxi gorabera egun horretako egitaraua azaldu nabi nizuHeke" Zuzen izatekotan, onela bear: gorabeera eta nizueke.

b) "Zenbait ikuskizun berriko gazteak antolaturik eta beraHien partaidetzarekin". Onela legoke zuzen: GazteEk beraien... Eta "partaidetza" baiño obeki legoke "beraiek tarteko dirala, beraiek lagunduta...".

d) "Haurrez agurtzen zaituztet Udal Korporazioren izenean" Nolako agurra ote da ori, erriko umez inguratuta? Bestela, AUR itzari H jartzen ba'diote ere, AURRE itzak ez du sekulan H'rik. Eta Udal-Batza edo beste itz bat egokiago, "korporazio" ori baiño.

6.—Nonbaiteko Aurrezki-Kutxetako batek, arribitxi auek zabaldu zituan orri batean: "Bezero estimatua... Euskaraz eta Gaztelaniaz konfekzionatuko dira... Lortu nahi litzatekeena da... Bulegoetako edozeinetan entregatuko bazenu... Gorago seinalatutako data...".

Gaztelera z pensatuz egindako itzulpenaren akatsak dira.

Gaztañaga'tar Jesus'ek